AZTIRIKO XVI. MENDI LASTERKETA
PARTE HARTZEKO ARAUTEGIA 2022

1. **DATA:** 2022ko uztailak 17.

2. **LEKUA eta ORDUA:** Aztiria Auzoa, Gabiria (Gipuzkoa), goizeko 10:30etan. Irteera eta amaiera puntuak Aztiriko plazan izango dira.

3. **IBILBIDEA:**

   - Aztiria (600m) – Aizeleku (810m) – Aztiria (600m) – Otaño (835m) – Aizpuru (790m) – Aztiria (600m).

   - 11 km eta 600 metroko desnibel positiboa.

4. **PARTE HARTZAILEAK:** Lasterketan gehienez 150 parte hartzaile izango dira eta guztiek 16 urte beteak izan beharko dituzte. Parte hartzaile guztiek araudi hau bete beharko dute.

   150 parte-hartzaileen muga gainditukо balitz, itxaron-zerrenda irekiko dugu. Zerrenda horretan izena emateko email bat bidali beharko da aztirikomendilasterketa@gmail.com helbidera. Jasotze data eta orduaren araberakoa izango da itxaron-zerrendako korrikalarien hurrenkera.

5. **PARTE HARTZEARI UKO EGITEA**: Uztailak 7 (egun hau barne) baino lehen parte hartzeari uko egiten diotenei dirua itzuliko zaie. Egun horretatik aurrera egiten dutenei berriz, ez.

6. **KATEGORIAK:**

   - Emakumezko absolutuak
   - Gizonezko absolutuak
   - Gabiriako/Legazpiko emakumeak
   - Gabiriako/Legazpiko gizonak

7. **IZEN EMATEAK:** izen ematea www.rockthesport.com webgunean egingo da. Epea 2022ko ekainaren 9 an hasiko da, eta 2022ko uztailak 14 arte (23:59) irekita egongo da.

8. **PREZIOA**: Parte hartzea 12€ izango da. Prezio honetan anoaguneak, kamiseta, dutxak eta luntx-a sartzen dira.

9. **SEINALEZTAPENA**: ibilbide osoa seinaleztatuta egongo da ikusgarri diren balizaje zintekin.

10. **ANOAGUNEAK**: 3 anoagune egongo dira lasterketan zehar eta azkena helmugan egongo da. Anoagune hauetan parte hartzaileentzat produktu solido eta likidoak egongo dira.

11. **IGAROBIDE DENBORAK**: Helmugara iristeko gehienezko denbora 2 ordu eta 30 minutukoa da. Hala ere, antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik baztertzeko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:

    - Ezarritako arauak hausten dituztenean.
    - Ezarritako ibilbidea betetzen ez dutenean.
    - Antolatzaileak esandakoari jaramonik egiten ez diotenean.
    - Gainontzeko korrikalariekiko kiroltasunez jokatzen ez dutenean.

12. **KONTROLAK:** Proban zehar antolakuntzak 2 kontrol gune jarriko ditu. Bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da eta dortsala agirian eraman beharko da.

    - Aizeleku (3km)
    - Otaño (8km)

13. **SARIAK**: Aurtengo sariak ondorengo hauek izango dira:

    - 1.go Emakumezko absolutoarentzat trofeoa + lore sorta
    - 1.go Gizonezko absolutoarentzat trofeoa + lore sorta
    - 2. Emakumezko absolutoarentzat trofeoa
    - 2. Gizonezko absolutoarentzat trofeoa
    - 3. Emakumezko absolutoarentzat trofeoa
    - 3. Gizonezko absolutoarentzat trofeoa
    - 1.go Gabiriko/Legazpiko Emakumearentzat trofeoa
    - 1.go Gabiriko/Legazpiko Gizonezkoarentzat trofeoa

14. **SAILKAPENAK**: Sailkapena www.rockthesport.com webgunean argitaratuko da.

15. **DORTSALEN BANAKETA:** Dortsalak Aztiriako plazan banatuko dira lasterketa egunean, uztailak 17, goizeko 9:00etatik 10:00etara. Partaide bakoitzak, bere dortsala eta kamiseta jasotzeko NAN-a erakutsi beharko du.

16. **DUTXAK**: Auzoko frontoiean eta elkartean izango da dutxatzeko aukera.

17. **INGURUMENA**: Lasterketan zehar ingurunea ahalik eta gehien zaintzeko eta zaborrak anoaguneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei.

18. **OSASUN LAGUNTZA**: Antolakuntzak osasun laguntza zerbitzua jarriko du irteera eta helmugan.

19. **SEGURTASUNA**: Segurtasun edo bestelako arrazoietan oinarriturik, antolakuntzak lasterketako ibilbidea aldatu edo desbideratu ahal izango du. Eguraldi arrazoiak medio, lasterketa bertan behera uzteko eskubidea izango du antolakuntzak.

20. **ERANTZUNKIZUNA**: Proban izena ematen duten guztiek, borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beraien oinordekoek erantzunkizun zibilari dagokienez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

    Parte hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere, antolakuntzak ez du arduraik izango. Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonei eragindako kalte ororen erantzunkizuna.

21. **BABES PERTSONALA**: Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.